

los términos más laudatorios concedió á él y á su hijo la dignidad de Patricio para usar de sus leyes é inmunidades y poder recibir cargos honorarios como si en Mesina hubiesen nacido. El mismo año recibió también el título de capitán del Santo Oficio y Revisor general de todos los bajeles, expedido en Palermo por los señores inquisidores apostólicos del reino de Sicilia.

Concluyó sus días en Palermo el año 1624 y á los 70 de su edad. Aquella ciudad, queriendo honrar su memoria, concedió á su hijo para sí y todos sus descendientes el título y honores de ciudadano. En su testamento ordenó Navarro de Larrategui que sus restos mortales fueran sepultados en la iglesia de Santa María de Lequeitio.

EUSKAL-ITZ JOSTALDIAK DONOSTIAN.

1 8 8 5 .

BILGUMA BEREZIAREN EGINTZA.

Uri ontako Euskal-itz jostaldien Bilguma, dator gaur, oituratzen duen bezela urte guchi barruz ononz, kontu ematera, bear dan errespetoarekin, leku au onratzen duten entzule guztiai, zér nolakoa dan, aurten, izkribatzalle, pintatzalle eta musikarieren indar-neurtzeetan, Batzar-epalle bereziak erabaki duten sari-emaldia.

Irakurgai onenari eskeñitako saria, gelditu da jabegabetua; bai ta ere, *Donostiar argidotarren bizitzeen gañean*, lanik ederrena azaltzen zuenari eskeñi zitzayona.

Jostiruditar saiorik onerari eskeñitako *Itztegia*, gelditu da jabegabetua; ematen zaiola *aldeera bat*, On Marcelino Soroa jaunari, *Aiziak ekarri ta aiziak eraman* azalkaitzat duela aurkestu duen jostaketagatik. Nola jostaketa onek dauzkan bainande gustagarriyak, pozik emango zion Bilgumak saria, itzekindari dagokion aldetik zenbait utsune iduki ezpalitu.

Edozein gai eta neurritan jarritako biursakintzik ederrenari eskeñitako *saria*, irabazi du On Victoriano Iraola-k, *Euskaldun leyal bat* izendatzen dan moldaeraren egillea dalako. Moldaera au dago ederki neurtiztua, itzera goitsuan izkribatua, eta irudi egokiz apaindua. Era-man du gañera, On Ramon Artola-k sari bat *Gizadiaren bizitza* azalkaitzat duela agertzen dan irudi polit neurtitz galaietan izkribatutakoa-gatik, moldaera onek pentsamentu ederrak eta bukaera ongariya dauzkalako: eta beste sari bat, *Kontuchoak*, izentzat duten ipui jator, ziaditsu eta euslkaltasunez beteakgatik.

Jabegabetua gelditu da Euskal-lurreko eleizacho famatu baten gañean, izkribu kondairazko onenarentzat eskeñi zan *makilla*; bai ta ere, Nafarroko Euskal-Elkargoak, eta uri ontako *Union Artesana* eta *La Fraternal* deritzaten elkarteak eskeñitako sariak.

EUSKAL-ERRIA-ren Zuzendariak eskeñitako *koroia*, gelditu da jabegabetua: baña eman zaio aipamen onragarri bat On Felipe Arrese ta Beitia, *Jaungoikoa eta Fueroak* izendatzen dan moldaeraren egilleari. Lan au dago chit ederki izkribatua, era ongi neurtiztua; baña nola beragan ez dan arkitzen kanta bati dagokion goitasunik, orregatik etzaio ematen, bestela emango zitzaion saria.

Santo Tomás egunean goizeko amarretan, izandu zan, lenez aurretik otsandetu zan bezela, 10.^{uk} 15urtera bitarteko mutill gazteen euskarazko esamiña: aurkestu ziranak irakurri eta izkribatu zuten ederki gure izkuntz maitean, seik irabazirik sari bana. Beren artean egin zuen esamiña gañ-gañekoa, Uri ontako Miserikordiko eche santuan dagoen mutill gazte Simon Ikatzetak, zeñaren irakaslea izandu dan On José Usandizaga, eche santu artako maisu jaun estimagarria.

Euskal-soñu zarren gañean ipiñitako antolamendurik onenarentzat eskeñitako *saria*, irabazi du On Modesto Letemendia jaunak, *Aizkibel jaunari* azalkaitzat duela agertu duen zortziko ederki moldatuagatik. Jaun oni berari eman zaio bi chistu eta bi chiolakin jotzeko antolamendurik onena moldatzen zuenarentzat agindutako *nikelezko eskritonziya*, *Chistu jotzaleari* izendaturik, aurkestu duen zortzikoagatik, berak dauzkalako Batzarreak azaldean eskatzen zituen doaiyak.

Euskal-lurreko eleizacho famatuetatik edozeñen antzestarik onenarentzat eskeñitako saria gelditu da jabegabetua: emanik *aldeera* bat, On Adolfo Morales de los Rios jaunari, Guretze Santu Lezo-koaren

eleizachoa, bere inguruakin, azaltzen duen antzestagatik, antzest' ontan arkitzen dan erraztasun eta antz aundiagatik.

Gipuzkoatar jatorren antzestaren egilleari eskeñi zitzaion *saria* irabazi du On José Echena jaunak, *Euskal irrintzia* azalkaitzat duen antzesta chit ederki egiñagatik: eman zaio, gañera, aipamen onragarri bat On Adolfo Morales de los Rios jaunari, kalietan arraya saltzen dabillan emakume bat agertzen duenagatik, errazki eta eroso moldatua dagoelako.

Sariztatu da, ere, On José Echena jauna; *Lekobide ta Oninza* izendatzen dan antzesta euskal-irakurgai batetik artuagatik, lan onek dauzkan doai bikaiñ eta euskaltasunagatik.

Au erabaki du, lan guziak ikusi ondorean, Uri ontako Bilguma bereziak.

Bukatzerakoan, Bilguma onek esan bear du tristura aundiarekin, igaztik onera izan duela doakabe samingarri bat, On Canuto Ignacio Muñoz jaunaren eriotzarekiñ. Baña, lurraren gañean dago Zerua; eta bien bitartean, guretzat, gure izkuntza laztana: *Bizi bedi Euskera*.

Donostian, 1885-eko Abenduaren 22 an.

Bilguma bereziaren izenean: LUIS MARÍA ELEIZALDE, Dianagusiak.
—ANTONIO ARZÁC, Goarpelariak.

